



EGUZKILORE

(Flor protectora contra las fuerzas negativas)

Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología.
San Sebastián, N.º 2 Extraordinario. Octubre 1989.

II Jornadas Penitenciarias Vasco-Navarras

• Enrique Múgica Herzog. "Conferencia de Apertura"	13
• Alfonso Aya Onsalo. "La defensa jurídica del interno en centro penitenciario"	19
• J. Antonio García Andrade. "Existen alternativas a la prisión"	29
• Santiago Mir Puig. "¿Qué queda en pie de la resocialización?"	35
• Heriberto Asencio Cantisan. "El sistema de sanciones en la Legislación penitenciaria"	43
• J. L. de la Cuesta Arzamendi. "La relación régimen penitenciario - resocialización"	59
• Luis Garrido Guzmán. "Los permisos de salida en el ordenamiento penitenciario"	65
• Lorenzo Morillas Cueva. "Algunas precisiones sobre el régimen penitenciario"	79
• Francisco Bueno Arús. "¿Tratamiento?"	89
• Borja Mapelli Caffarena. "La crisis de nuestro modelo legal de tratamiento penitenciario"	99
• Elena Pérez Fernández. "Intervención en los centros penitenciarios de Catalunya"	113
• Robert Cario. "Femmes et prison"	127
• Reynald Ottenhof. "Les femmes et la prison"	141
• "Acto de entrega del Libro Homenaje al Prof. Beristain"	145
• Antonio Beristain. "Aportación de los Institutos de Criminología a las Instituciones penitenciarias"	161
• Francisco Muñoz Conde. "La prisión en el estado social y democrático de derecho"	165
• Enrique Ruiz Vadillo. "Estado actual de la Justicia penal (Su necesaria y urgente reforma)"	173
• José Ignacio García Ramos. "Coordinación penitenciaria"	185
• Günter Blau. "Las competencias penitenciarias de los estados de la R. F. Alemana"	189
• Joaquín Giménez García. "Coordinación penitenciaria"	199
• J. J. Hernández Moreno. "La Coordinación entre las administraciones penitenciarias"	205
• Tony Peters. "Internamiento en prisión en Europa: Datos y comentarios a partir del ejemplo de la política penal y penitenciaria belga"	211
• Tony Peters. "Justicia penal y bienestar social en Bélgica"	221
• I. Murua, J. Ramón Guevara, T. Peters. "Acto solemne de clausura"	235
• A. Maeso Ventureira. "II. Eusko - Nafar Presondegi Ihardunaldiak"	243
• Christian Debuyst. "Perspectives cliniques en criminologie. Le choix d'une orientation"	251
• Luz Muñoz González. "La criminología radical, la nueva y la crítica"	267
• Andrzej Wasek. "Die Strafrechtsreform in Polen"	283

II. EUSKO - NAFAR PRESONDEGI I HARDUNALDIAK (Donostian, 1989ko Apirilaren 3, 4 eta 5)

Augusto MAESO VENTUREIRA

Epai Idazkaria

1.- 1989ko Apirilaren 3, 4 eta 5ean, Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutoak (IVAC-KREI) antolaturik eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia Garapenerako Sailak lagunduta, II. Eusko-Nafar Presondegi Ihardunaldiak izan ziren Donostian, 1987ko Urrian izandako I. Ihardunaldiei jarraikortasuna emanez.

Egitarau trinko bat osatzen zuten mahai inguru, hitzaldi eta bestelako egintzetan, herrialde ezberdinetako 41 hizlari aritu ziren, beren ikuspuntu ezberdinetatik, eztabaida oparoa sortuz, espainar eta atzerritar presondegietakoko egoerari buruz.

Inskripzio eskaeren kopurua askoz ere handiagoa izan arren, lekune erabilgarria zela eta, asistentzia 250 lagunetara mugatu zen, etorki askotarikoa eta espetxe, laguntza soziala, Kriminologia edo Zuzenbidearekin nola edo hala erlazonaturik.

Batzarraldi akademikoekin batera, Donostiako Udaletxean, Euskal Herriko gartzeletako barneratuek egindako marrazki, pintura, eskultura eta beste arte-lanen erakusketa antolatu zen, non epaimahaiak, aurkeztutako obren artean, lau sari banatu zituen.

2.- A. BERISTAIN (IVAC-KREIko Zuzendaria), J.L. de la CUESTA (Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Publiko Saileko Zuzendaria eta Zuzenbide Penaleko Katedraduna), J.R. CASABO (Valentziako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Katedraduna), J. GIMENEZ (Donostiako Entzutegi Probintzialeko Lehendakaria), M. IRACHETA (Iruñako Lurralde-Entzutegiko Lehendakaria) eta E. MUGICAK (Justizi Ministraria) hasiera eman zieten ihardunaldiei, mota honetako eztabaida zientifikoak burutzeagatik euren poza agertu eta espetxe munduari buruzko hausnarketak gizartera zabaltzeko gogoaz azalduz.

Justizi Ministrariak, bere hitzaldian, Gobernuaren konpromezu politiko argia adierazi zuen, presoak, pertsona denez, dituen oinarrizko eskubideak errespetatu daitezkeen; gogoratu zuen gaur egun indarrean dagoen presondegi araudiak, munduan indarrean dauden sistema juridiko aurrerakoienetako bat osatzen duela eta giza baliabideak, osasunekoak, lanekoak eta presondegietak materialak gehitu eta hobetzeko egin diren ahalegin finantzarioak aipatu zituen.

Dena den, gartzelaren ondorio birsozializatzaileak murriztuak direla onartu zuen, barneratuen kopuru handitzeak, epe laburrean, konponezinezko defizitak sortu ditu eta.

Egoera larri honen aurrean, beste esparru batzuetan aldi berean aritzeko beharra azpimarratu zuen, prozesu penala arinduz, jokaerak deskriminalizatuz eta askatasungabetze penaren erabilbidea gutxituz —12-28ko 7/88 Lege Organikoa, Penal Epaitegiak sortzen eta prozedura laburra ezartzen duena eta Kode Penalaren gaurkotze Legearen proiektua, Lege Biltzarrean eztabaidatzen ari zena (*) aipatuz—.

Era berean, zenbait Arduralaritza kritikatu zituen, zeintzuk, alde batetik, gaurko gabekeria salatzen duten, eta bestetik, egoera hau gainditzeko eskatzen zaien laguntza ukatzen duten.

3.- *Arazo orokorre* buruzko mahai inguruan, M. IRACHETA, A. AYA (Gasteizko Entzutegi Probintzialeko Fiskal-Burua), S. MIR PUIG (Bartzelonako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Katedraduna), J.A. ANDRADE (Auzitegi Medikuen Elkarteko Lehendakaria), eta A. WASEK-ek (Lublin, Poloniako Unibertsitateko Zuzenbide Penal eta Kriminologiako Katedraduna) parte hartu zuten. Bertan, askatasungabetze zigorrek helburutzat izan behar duten birsozializazioari uko ez egitearen borondatea agertu zen, nahiz eta —erabilitako bitartekoen eskasiaren erruz— lortu diren emaitzak urriak izan; birsozializazioa lortzen ez bada, gutxienez ahaleginak egin beharko liratekeela espetxeak gehiago desozializa ez dezan argudiatuz.

Presondegi tratamenduaz, berriz, bete beharreko baldintza batzuei aurkeztu ziren:

—Nahi ez duenari ezin zaio inposatu, laguntza eskaintza bat izan behar da.

—Denbora muga bezala, ezarritako zigorrarena izan behar du, arrakasta izan badu edo ez badu.

—Gutxienezko programen zentzuan ulertu behar da; hots, honen helburua barneratuak delitu gehiago ez egitea lortzea litzatekeelarik (kanpo atxekimendua),

(*) Gaur egun, Kode Penala gaurkotzeko 6-21eko 3/89 Lege Organikoa.

gizakiaren kontzientzian sartu nahi gabe, ezta bere pertsonalitatea eraldatu ere (barne atxekimendua).

Eztabaidatutako beste gai batzu, askatasungabekoei laguntza juridikoa gehitzearen beharra eta Poloniako gartzelen egoera errepresiboa izan ziren.

4.- “*Eraentza Penitentziarioa*” gaitzat zeukan mahai inguruan, E. BACIGALUPO (Auzitegi Goreneko Magistratua eta Zuzenbide Penaleko Katedraduna), J.L. de la CUESTA, L. MORILLAS (Granadako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Katedraduna), L. GARRIDO GUZMAN (Alicanteko Unibertsitateko Kriminologi Institutoko Zuzendaria) eta J.C. CARBONELL (Illes Balears-etako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Katedraduna) partaide izan ziren. Besteak beste, eztabaidatu ziren erregimen eta tratamenduaren arteko desberdintasunak, eraentza ere birsoziaztaile printzipioan oinarritu beharra eta prebentziozko espetxeratuak, horrela asmatutako erregimen gozatzeko posibilitatea.

Egiaztatu zen erakunde penitentziarioen Erregimen eta Administrazio Batzordean legelari gutxi daudela, barneratuen laguntza juridikoa gehitu beharra, Epaile Zaindarien eskuduntzak areagotzekoa. Administrazio Penitentziarioarenak gutxituz, eta gartzeletan presoek egindako delituei “non bis in idem” printzipioa ezartzekoa, zehapan penal eta disziplinarioen bikoizketa ekidinez.

Era berean —batez ere, Justizia Penalaren gelditasunak— Espainako presondegiek jasaten duten pilaketa eta prebentziozko presoen kopuru bildurgarria azpimarratu zen, arazo hauei aurre egiteko Epaitegien zenbakia areagotzea eta prozesuak arintzen dituen Judiziamendu Kriminal Legearen premiazko erreforma proposatuz.

Bestalde, barneratu eta kanpoko mundua erlaziona ditzaketen lokarriak ez haustearen komenientzia adierazi zen, horretarako neurri batzu proposatu zirelarik, hala nola, boluntariadua bultzatzea, sistema orokorretan integratutako hezkuntza, lan, osasun eta abarrek sistema erabilpena eta irteteko baimenak mantentzea, dauzkaten ukazinezko eragin onuragarriengatik eta baimena ondoren, gartzelara itzultzen ez den preso kopuru urriagatik.

5.- F. BUENO ARUS (Comillas, Madrilgo Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Irakaslea), E. PEREZ (Generalitateko Departament de Justicia-ko Presondegi Tratamendu Sailburua), B. MAPELLI (Sevillako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Katedraduna) eta J.R. CASABOK “*tratamendua eta bere krisia*”-z eztabaidatu zuten. Teorizatzaile eta praktikatzaileen eritzi desberdinak kontrajarri ziren, lehenengoei kartzelutako eguneroko bizitzan sortzen diren arazoetatik urrunegi egotea, eta besteei beren lanak daukan eragina eta izan beharko lukeenaz ez hausnartzea leporatu zitzaielarik.

E. PEREZek laburtu zuen Generalitatea burutzen saiatzen den tratamendua: gizakiaren askatasuna errespetatzen duena, eta helburu neurgarrietan zehaztua: higiena, lan-hezkuntza, droga desintoxikazioa etab.; behin eta berriro azpimarratuz tratamendu baten porrotak ez duela suposatzen beste guztiakin gauza bera gertatu behar denik.

F.BUENO ARUSEk, Administrazioaren borondate politiko eza salatu zuen; izan ere, gaitutako langilego eta burutzeko baliabide faltak tratamenduaren ezintasuna eragin bait du.

B. MAPELLIK, bere aldetik, Arduralaritzza ere kritikatu zuen; bide errepresiboa eta ez prebentzioskoa jarraitzeagatik eta tratamendu araudiaren erreforma eskatu zuen, eraentzan ondoriorik izango ez duen aukera libre bat bihurtzeko, prebentziosko presoei ere eskainia eta gizakiaren kontzientzian sartu nahi ez duena.

6.- G. BLAU (Richter am Oberlandesgericht a. D.), E. GIMENEZ- SALINAS (Bartzelonako Centre d'Estudis i Formació-ko Zuzendaria), R. OTTENHOF (Pab-eko Unibertsitateko Zientzi Kriminalen Erakundeko Zuzendaria eta Zuzenbide Penaleko Katedraduna) eta A. WASEK-ek, gartzel eta gartzel-ondoko "laguntza soziala"-z ihardun zuten, askotan baztertzan den arlo eraginkor honetaz, beren herrialdeetako egoera laburtuz.

Adin-txikiko eta gazteei inposatutako askatasungabetze zigorren betetzeari buruz ere eztabaidatu zen, errepresio eta birgaiketara baino gehiago, hezkuntzara zuzendua egon beharko lukeena.

7.- E. ECHEBURUA (Euskal Herriko Unibertsitateko Pertsonalitate, Ebaluaketa eta Tratamendu Psikologiko Saileko Zuzendaria), A. CARIO (Pab-eko Arte Plastiketako Irakaslea), R. CARIO (Pab-eko Unibertsitateko Maître Assistant), R. OTTENHOF eta F. MIRALLESEK (A.C.O.P.E.-Gartzelatutako emakumeei laguntzeko Elkarte-ko Lehendakaria eta Comillas, Madrileko Unibertsitateko Psikologiako Irakaslea) ekin zioten "Emakume eta espetxea" gaiari. Hauen esanetan, gizonezkoentzat egindako gartzela, emakumezkoentzat are gogorragoa da; bestalde, azken hauek egindako delitu portzentaia gero eta handiagoa da, nahiz eta oraindik gizonezkoena askoz ere altuagoa den. Hain gutxi landu den gai honi buruzko analisi zehatzen beharra ere aipatu zen. Zentzu honetan, orain dela gutxi IVAC-KREIk argitaratu duen *Cárcel de mujeres* liburua goraipatu zelarik.

Aurkezpen akademikoa aberastu asmoz, A. CARIOK egindako "Prison de femmes" filmea bota zen. Pelikula, Rennes-eko Emakume Presondegian barneratutako baten gouache batzuetan oinarritzen da, non emakumeentzako espetxeetan egunero bizi den gogortasuna eta dramatismoa agertzen bait da.

8.- A. BERISTAIN, L. GONZALEZ GUITIAN (Santiago de Compostelako Kriminologi Institutoko Zuzendaria), A. GARCIA-PABLOS (Madrileko Kriminologi Institutoko Zuzendaria), F. MUÑOZ CONDE (Sevillako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Katedraduna), E. GIMENEZ- SALINAS eta M. COBO DEL ROSAL (Madrileko Complutense Unibertsitateko Kriminologi Institutoko Kontseilu Orokorreko Lehendakaria), "Kriminologia Institutoen ekarpen berezia"ri buruzko mahai inguruan aritu ziren. Kriminologiaren kontzeptuaz eta erakunde penitentziarioetako funtzionari, epaile eta, orokorrean, legelariak, zientzi honetan prestakuntza gehitzeko komenentziaz hitzegin zuten. Baita ere, presoen birsozializazioa lortzeko, edo, behintzat, baztertze handiago bat ekidintzeko, lanean jarraitzeko asmoa adierazi zen eta arazo penitentziarioei aurre egiteko Administrazioaren borondate politiko eza ere kritikatu zen, prebentziosko neurrien indartzea, errepresibo hutsak baztertuz, eta

askatasungabetze zigorraren ordez, hain estigmatizatzaile ez diren beste batzu erabiltzea proposatuz.

9.- E. RUIZ VADILLOk (Auzitegi Goreneko Bigarren Gelako Lehendakaria) “*Justizia Penalaren egungo egoera: bere beharrezko eta premiazko erreforma*”ri buruz hitzaldi bat egin zuen. Justizia Penalaren Administrazio geldoa bizkortzeko zenbait neurri aipatu zituen; besteak beste: gaur egun delitu edo hutsegite bezala jotzen diren jokaera batzuen deskriminalizazioa edo despenalizazioa, helegiteei iragazki hautakorrak ezartzea, fiskal eta epaileen espezializazioa, askatasungabetze zigorrarentzat beste aukera bat bilatzea eta Kode Penala, Judiziamendu Kriminal Legea eta Presondegi Lege Orokorren erreforma bateratua.

10.- “*Koordinaketa Penitentziarioa (Autonomiak eta Europako Kontseilua)*” izan zen J.I. GARCIA RAMOS (Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Sailburuordea), H. ASENSIO (Sevillako Penitentziario Epailen Zaindaria), J. GIMENEZ, J. HERNANDEZ (Generalitat-eko Departament de Justicia-ko Berrabiltze eta Zerbitzu Penitentziarioetako Zuzendari Orokorra), G. BLAU, eta T. PETERS- ek (Lovaina-ko Katoliko Unibertsitateko Kriminologiako Katedraduna) parte hartu zuten mahai inguruaren gain. Bertan, erakunde penitentziario arloan, Komunitate Autonomoen eskudun transferentziaz, eta horren inguruan sortutako gatazkez eztabaidatu zen. Baita ere Zuzenbide Penitentziarioari buruz Europako Kontseiluak hartutako erabakiez eta horien betetzeaz Europako zenbait herrialdeetan mintzatu ziren. Gaur egun, askatasungabetze zigorrak alde batera uzteko ezintasuna baieztatu zen eta bide batez, bere erabilpena gutxitzearen beharra —batez ere, zigor motzena—, horretarako aukerak bilatzea ezinbestekotzat jo zelarik; hala nola, “Probation”a, komunitatearen aldeko lana, biktimaren kalte ordaina, asteburuetakozko atzipenaldiak, edo isun zigorra maizago erabiltzea.

11.- T. PETERS, “*Laguntza soziala*”ri buruz aritu zen, bereziki esperientzia belgiarra, eta orokorrean europarra, aurkeztuz, arlo honetan borondatezko laguntzaileek duten garrantzia nabarrian ezarriz.

12.- BERISTAIN irakaslearen 65. urtebetetzea zela eta, *Criminología y Derecho Penal al servicio de la persona. Libro- Homenaje al Profesor Beristain*, IVAC-KREIK argitaratutako liburua aurkeztu zen. Ekitaldian, J.M. CASTELLS (Donostiako Zuzenbide Fakultateko Dekanoa), J.L. de la CUESTA, J. PINATEL (Kriminologiako Nazioarteko Elkartearen Ohorezko Lehendakaria), E. RUIZ VADILLO, M. COBO DEL ROSAL, R. OTTENHOF eta E. ECHEBURUAK, nazioartean prestigio handia duen BERISTAIN irakaslearen pertsona eta zientifiko bezala dituen birtute batzu gogoratu ondoren, E. RUIZ VADILLOk, bere ohorez egindako liburua, eman zion.

Izugarria, bitxia eta ezinbestekoa den argitalpen hau, de la CUESTA, ECHEBURUA eta DENDALUZE irakasleek bildua izan da, eta bere barnean, J. CARO BAROJA, N. BASTERRECHEA, E. CHILLIDA, A. IBARROLA, A. NAGEL, J. OTEIZA eta Donostiako Martutene espetxeko presoekin kolaborazio artistikoekin batera, Espainia eta atzerriko autore nagusienek egindako ehun artikuluko biltzen ditu —egile guztien izenak aipatzea luzeegia gertatuko litzazuke— batez ere, Kriminologia, Zuzenbide Penala eta Penitentziarioa eta Kriminal Politikari buruzkoak.

13.- Ekitaldi solemne batez amaiera eman zitzaion Ihardunaldiei, zeinean, A. BERISTAIN, M. COBO DEL ROSAL, J.R. RECALDE (Eusko Jaurlaritzako Ikerketa, Unibertsitate eta Hezkuntz Sailburua), J.I. GARCIA RAMOS, A. BASSOLS (Generalitat-eko Conseller de Justicia), A. ASUNCION (Erakunde Penitentiarioetako Zuzendari Orokorra) eta I. MURUAK (Gipuzkoako Diputatu Nagusia) parte hartu zuten. Azken honek, lurralde honetan, presondegi arazoekiko sentsibilitatea aspaldidanik datorrela erakusten duten zenbait lege zahar aipatu zituen.

J.I. GARCIA RAMOSek, J.R. GUEVARAK (Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, Zuzentza eta Autonomiarako Garapen Sailburua) bidalitako testu bat irakurri zuen, non neurri prebentibo, deskriminalizatzaile eta despenalizatzaileen alde egiten bait zuen, eta zerbitzu penitentiarioen eskuduntza lehenbailehen Komunitate Autonomora pasa dadin errebindikatzen zuen.

Zentzu berean, A. BASSOLSek, Katalunian transferentzia penitentiarioen ondoren lortutako aurrerapenak goraiatu zituen.

A. ASUNCIONek, bere aldetik, presoek zerbitzuan jarritako laguntza, hezkuntza, lan, eta osasun baliabideak, ahalik eta normalizatuena izan daitezen bere borondate tinkoa agertu zuen, barneratu eta gizartearen arteko harremana ekidintzen duen eta beharrezkoa ez den espezializazioa baztertuz.

14.- Ikus daitekeenez, puntu asko ikutu ziren presondegi munduaren inguruan. Dena den, laburpen gisa, bi aukeratuko genituzke. Alde batetik, askatasungabetze zigorrek jasan zituen kritika ugariak. Askorentzat, gaur egun, oraindik beharrezkoa den arren, aipatutako zigorraren erabilpena gutxiagotzea aho batez eskatu zen. Bestaldetik, presoek jasaten duten egoera latza salatzerakoan ere, adostasuna egon zen. Barneratuen birsozializazioa benetan lortu nahi baldin bada, legeetan aldarrikatzea ezezik, burutzeko ardura duten erakundeak beharrezko baliabideez hornitzea ere ezinbestekoa da.

ANEXO

Al Libro-Homenaje al
 Profesor Antonio Beristain.
 Criminología y Derecho Penal
 al servicio de la persona.



En las páginas siguientes aparecen las contribuciones enviadas para este libro homenaje que, por haber llegado con posterioridad, no pudieron ser publicadas en él.

Con nuestro agradecimiento,

José Luis de la Cuesta, Iñaki Dendaluze, Enrique Echeburúa (Compiladores)